



SUKAR-KONBULTSIO TIPIKOA

Hala esaten zaie 6 hilabetetik 6 urtera bitarteko haurren artean sukarrak eragindako krisiei.

Nahiko ohikoa da. Haurren %3-%4ri eragiten die.

Aldez aurretik badago joera genetiko bat horretarako -beti dago senitartekoren bat halako krisiak edo berdintsuak izan dituena-.

PRONOSTIKOA: Haur horien pronostikoa oso ona izan ohi da.

TRATAMENDUA:

- Tenperatura jaitsi behar da:
 - o Sukar-kontrakoeekin (aspirina edota parazetamola).
 - o Bainu epelekin.
- Konbultsioak ez badira geratzen:
 - o Stesolid®, ipurditik.
2 urtetik beherako umeei, 5 mg-ko kanula bat ipurditik.
2 urtetik gorako umeei, 10 mg-ko kanula bat ipurditik.

KRISIAK BERE HARTAN JARRAITZEN BADU, LARRIALDIETARA JOAN

